



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2012ko ABENDUAREN 28an EGINDAKO OHIKO  
BILKURAREN AKTA**

2012ko abenduaren 28an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Uxue Etxebeste Eizagirre  
Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen du: Leire Otegi Elola.

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
  - 2012ko azaroaren 6an egindako ohiko bilkuraren akta.
  - 2012ko azaroaren 27an egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Zumitza eta Basozabal baserriko lurretan betelana egiteko baimen eskaera, Excavación- Construcción PERU S.L.**
5. **Beleburupe Guraso Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**
6. **Beste batzuk.**
7. **Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

### **LEHENENGO PUNTUA** **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2012ko azaroaren 6ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2012ko azaroaren 27ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

31/2012 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 18koa, 2013ko ekaineko aparteko ordainsariari dagozkion nominaren aurrerakinak eskuratzeko eta ahalbidetzeko prozedura onartzea, ebazten duena.

32/2012 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 21ekoa, Alkizako Udaleko 2012 urteko bigarren goi-erabaketa zabor tasaren udal errolda onartzea, ebazten duena.

33/2012 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 21ekoa, Faktura txikien zerrenda onestea eta ordainketa burutu dadila agintzea, guztira 916,45 euro direlarik, ebazten duena.

### **HIRUGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- IZADI INGURU 21,S.L.	6.260,88€
- BULEGOAK	211,42€
- IBARRA SOKATIRA TALDEA	400,00€
- IZFE	393,88€
- ELECTRICIDAD ZIZURKIL	248,27€
- ARGITERIA USANDIZAGA	435,60€
- IZADI LABORATEGIA	148,83€



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- IZADI LABORATEGIA	148,83€
- VODAFONE	358,75€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

### ERABAKITZEN DUTE

LEHENEA.- Guztira **8.606,46** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

### LAUGARREN PUNTUA

### **ZUMITZA ETA BASOZABAL BASERRIKO LURRETAN BETELANA EGITEKO BAIMEN ESKAERA, EXCAVACION-CONSTRUCCION PERU S.L.**

Ikusirik F.P.G. jaunak, Excavaciones PERU S.L.-ren izenean eginiko eskaera, non Zumitza eta Basozabal baserriko lurretan betelana egiteko baimena eskaera egiten duen. Horretarako Astiv enpresako Ricardo Luis Urretxo eta Javier Fernandez ingeniariak sinatutako proiektu bisatua aurkezten dute.

Ikusirik, 2012ko abenduaren 21ean, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean dioena:

### **“ALKIZAKO ZUMITZA ETA BASOZABAL BASERRIKO LURRETAN BETELANA EGITEKO BAIMEN ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

*F.P.G. jaunak, Excavaciones PERU S.L.-ren izenean, Zumitza eta Basozabal baserriko lurretan betelana egiteko baimena eskatzen du, Astiv enpresako Ricardo Luis Urretxo Garcia eta Javier Fernandez Razquin ingeniariak sinatutako proiektu bisatua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

*Aurkezten den gauzatzeko proiektuan, Zumitza eta Basozabal baserriko Sakamidra izeneko parajea 578.000m<sup>3</sup>-ko betelan bat egiteko asmoa azaltzen da. Betelana osatzeko materiala Hernialde-Zizurkil tarteko AHT lanetatik eratorria izango da eta lanen iraupena 2-3 urtetakoa izango dela aurreikusten dute. Lan hauen gauzatze materialeko aurrekontua 708.680,60€ takoa da.*

*Sakamidra inguruko lurak Alkizako ingurumen hobekuntzarako eta erabilera berezirik ez duen lur ez-hiritargarrian kokaturik daude.*

*2006-ko azaroaren 6-ean Gipuzkoako boletinean argitaratutako “Alkizako Hiri Antolaketako arauen aldaketa lurzoru hiritarrezinaren araudiko” lurra*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*betetzea eta egokitzeei buruzko 1.11 artikulua arabera, lurren betelanez, Eusko Jaurlaritzak ezarritako dekretuaren arabera zilegituko dira.*

*Gauregun indarrean dagoen dekretua, "112/2012 eraikuntza eta eraipen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen dekretuak" aldatutako "49/2009 dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea erazten duena" da.*

*Aldatutako 26º artikulua honela dio (Betelanak baimentzeko araubidea)*

*1.-Urte batetik gora luzatzen diren 500.000m<sup>3</sup> baino edukiera handiagoko lurarekin eta arroekin egindako betelanez eta, orobat, haiek aldatzeko edo handitzeko lanek tokiko udalaren jarduerara sailkaturako udal-lizentzia behar dute.*

*2.-Jarduerara sailkatuko lizentzia behar duen betelan baten sustatzaile fisiko edo juridikoak lizentzia eskatzen duenean, eskaera-orriarekin batera proiektu tekniko bat aurkeztu behar du, proiektua egin duenaren elkargo profesionalak ikus-onetsia eta dekretu honen V. Eranskinak ezarritako dokumentazioa izango duena, hargatik eragotzi gabe jarduerara sailkatuen erregimena ezartzen duen araudian ezartzen dena.*

*3.-Kasu guztietan, bai jarduerara sailkaturako lizentziaren eskaerarekin batera, bai udal-agintaritzari egin beharreko jarduerara sailkatuaren aurretiko jakinarazpenarekin batera, ur gaietan eta biodibertsitatea babesteko gaietan eskumena duten organoek alde aurretiko emandako nahitaezko txosten loteslea aurkeztu behar da, gehienez 2 hilabeteko epean.*

*Aurkeztutako dokumentazioan, 49/2009 dekretuaren V eranskinak eskatzen duen **biodibertsitatea babesteko gaietan eskumena duten organoaren txostena falta da.***

*Lan hauek baimendu ahal izateko aurreko txostena ekarri beharko da udaletxera."*

Gaia azterturik, bertaratuak, Udalbatzak, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- F.P.G. jaunak, Excavaciones PERU S.L. –ren izenean eginiko baimena eskaera ukatzea, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen duen dokumentazioa ekarri bitartean.

BIGARRENGOA.-Erabaki honen berri F.P.G. jaunari ematea.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**BOSTGARREN PUNTUA**  
**BELEBURUPE GURASO ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA**  
**ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Beleburupe guraso elkarteak, San Juan bezperako festan eta San Martin eguneko festan hainbat ekintza burutzen dituztela. Hauen kostua finantziatzeko Alkizako Udalarari diru-laguntza eskaera egiten die.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Beleburupe guraso elkarteari 320 eurotako diru-laguntza ematea, San Juan bezperako festan eta San Martin eguneko festan hainbat ekintza burutzeko.

BIGARRENA: 320 eurotako gastua onartzea.

**SEIGARREN PUNTUA**  
**BESTE BATZUK**

*Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.*

**6.1. ALKIZAKO SANTIAGO ERMITA 3-B ETXEBIZITZAREN LORATEGIAN BELARRA KENDU ETA BALDOSAZKO ZORUA JARTZEKO BAIMENA ESKAERA ETA ETXEKO GARAJE INGURUKO LUR SAIL BATEAN, EUSTE HORMA JARRI ETA BALDOSAZKO ZORUA JARTZEKO BAIMENA ESKAERA, A.B.D.**

Ikusirik A.B.D. andreak eginiko eskaera, non Alkizako Santiago Ermita 3-B etxebizitzaren lorategian belarra kendu eta baldosazko zorua jartzeko baimena eskaera egiten duen, eta aldi berean ere etxeiko garaje inguruko lur sail batean, euste horma bat jarri eta baldosazko zorua jartzeko baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

LEHENA: A.B.D. andreak eskaturiko obra baimena, hau da, Alkizako Santiago Ermita 3-B etxebizitzaren lorategian belarra kendu eta baldosazko zorua jartzeko baimena eskaera **oneste**a.

BIGARRENA: A.B.D. andreak eskaturiko obra baimena, hau da, Alkizako Santiago Ermita 3-B etxebizitzaren garaje inguruko lur sail batean, euste horma bat jarri eta baldosazko zorua jartzeko baimena eskaera **ukatu**.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

## **6.2.ETXABURUA 1 ETA 2-KO JABEKIDEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA.**

Ikusirik Etxaburua 1 eta 2ko jabekideak eginiko eskaera, non Komunitateko ur hornidura orokorreko loturari baja emateko eskaera egiten duten, ez dutelako erabiltzen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Etxaburua 1 eta 2-ko jabekideak eginiko eskaera onestu, hau da komunitateko ur hornidura orokorreko loturari baja emateko onespena.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

## **6.3.1/2012 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA**

Udala honen 2012 urteko Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa denak 34.1 artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratuek, ahobatez honako hau



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

### Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena

Aurrekontu-partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Egunoa	Aldaketak	Behinbetikoak
131.120.00.01	Aldarteko laboralen soldata	37.000,00	1.200,00	38.200,00
211.120.00.01	Eraikinen konponketak	3.000,00	4.110,00	7.110,00
212.431.00.01	Don Juanena igogailu mantenimendua	0,00	2.410,00	2.410,00
212.500.00.01	Makinaria, intalazioak eta tresneria	2.000,00	2.850,00	4.850,00
220.120.00.01	Bulego materiala	800,00	1.800,00	2.600,00
221.422.00.01	Eskola, haur eskola, argi indarra	2.000,00	700,00	2.700,00
221.420.00.03	Gasa, eskola eta haurreskola	3.000,00	1.900,00	4.900,00
221.431.00.03	Don Juanena gasa	0,00	1.000,00	1.000,00
221.120.00.09	Garbiketako produktoak	800,00	400,00	1.200,00
222.120.00.01	Udala, telefonoa	2.000,00	1.000,00	3.000,00
226.441.00.01	Uraren kanona	226,00	65,00	291,00
226.120.00.99	Beste hainbat gastu	500,00	1.200,00	1.700,00
626.120.00.01	Gipuzkoashare proiektua	00,00	3.630,00	3.630,00
643.120.00.01	Ikerketa, azterketa eta proiektuak	5.000,00	1.500,00	6.500,00
933.010.00.01	2009ko emaitza negatiboa amortizazioa	20.000,00	80,00	20.080,00
625.120.00.01	Fotokopiagailua eta memoria	0,00	3.092,00	3.092,00



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

422.120.02.01	Telefono mugikorrek	2.400,00	270,00	2.670,00
<b>GUZTIRA</b>			<b>27.207,00</b>	

**Kreditu gehigarriak finantziazteko proposamena**

<b>Sarrerren kontzeptuak edota gastuen partidak</b>	<b><i>Baliabidearen kontzeptua</i></b>	<b>Sarrera handiagoak/gastuetako bajak</b>	<b>Baliabidearen partziala</b>
130.510.00.01	Laboral finkoen soldata	1.020,00	
160.310.00.04	Elkarkidetza kuotak	372,00	
163.120.00.01	Pertsonal laboralen prestakuntza	300,00	
422.460.00.01	Aiztondo	7.500,00	
226.451.00.06	Iharduera soziokulturalak	3.000,00	
226.451.00.99	Festak	1.000,00	
431.500.00.01	Tolomendi	500,00	
720.000.00.01	G.I.h: uholdeak	2.478,00	
710.000.00.06	Teknologi berriak dirulaguntza	1.243,00	
114.000.00.01	Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko	2.400,00	
399.000.00.01	Bestelako hainbat dirusarrera	1.045,00	
396.000.00.01	Telekomunikazio operadoreak	500,00	
710.000.00.02	Erein	1.500,00	
720.000.00.99	Eskola kirolak dirulaguntza	238,00	
210.432.00.01	Azpiegitura eta ondasunen mantenimendua	1.231,00	
160.120.00.01	Gizarte segurantza	2.880,00	
<b>GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b>		<b>27.207,00</b>	

BIGARRENA.- Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita eta hamabost eguneko epean, espedientea jendeaurrean ipintzea edonork egoki dituen erreklamazio zein iradokizunak





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

burutu ditzan. Baldin eta erreklamaziorik egongo ez balitz, espedientea behin betikotzat onartuta geratuko litzateke besterik gabe.

**ZAZPIGARREN PUNTUA**  
**ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.15 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*